



OINARRIZKO BALIABIDEAK

Ekarpenak: Bakoitzak jartzen duen diruaren arabera, aurrekontu handiagoa edo txikiagoa izango dugu gure negozio-ideia finantzatzeko

Crowdfunding: Proiektuetarako edo ekimenetarako dirua biltzeko modu bat da, pertsona askoren ekarpenen bidez, normalean lineako plataformen bidez. Praktika horri esker, gizabanakoek edo enpresek zuzeneko finantza-laguntza lor dezakete interesdunengandik, eta pertsona horiek sariak edo onura sinbolikoak jaso ohi dituzte trukean. Gure kasuan, ideia (gure aplikazioa) bezeroei eskaintzea da, eta interesatzen zaienek diru bat ordainduko dute gure negozio-ideiagatik.

Bankuak: Bankuari mailegu bat eskatzea litzateke, zerbitzua, aplikazioa eta zerbitzariak finantzatzen lagun diezagun.

Inbertsioreak: Inbertitzaileak proiektu, enpresa edo aktibo bati etorkizunean etekin edo onura ekonomikoa lortzeko dirua edo baliabideak ematen dizkioten pertsonak edo erakundeak dira. Gure kasuan dirua bueltatuko genuke edo gure zerbitzua dohanik eskaintzea, adib: entrenatzailea dohanik eskaintzea, ez dute hilabetero ordaindu behar... etab.

Diru Laguntzak: Diru laguntzak enpresa edo autonomo batek erakunde publiko batetik jasotako ekarpen ekonomikoak dira. Hauek hainbat helburu espezifikori lotuta egon daitezke, eta ez dira itzuli behar.

